

Goie... itarra

360. zenbakia 2009ko maiatzak 8



ZEGAMA ZERAMIKAREN HIRIBURU

ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Ε Μ Ψ Ε

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA *Salvatore Ferragamo* EXTÉ ROMEO GIGLI



efaktore



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
16. zenbakia zure esku



Tailerrak museoan
Iarunbatero Ormaiztegiako Zumalakarregin

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Rufino Iraola.

5. Ingurugiro txokoa: Iraganeko itsas mailaren aldaketak (I)

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XIX)

7. Aholkua: Kutxa Zeharo: lan bila dabiltzan pertsonen eta enpresen zerbitzura

8. Erreportajea: Goierriko Eskola Txikien festa Olaberrian.

12. Erreportajea: Zegama, zeramikaren museoa bihurtzea helburu.

17. Kirola: Antonio eta Itoitz Alustiza bolariak.

22. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola

Horixe da kultura, begiratu batera inolako premiarik gabe gizakiak sortzen duena; nahiz eta inolaz ere ezin den ulertu gizakia kultur sormenik gabe.

Kulturaren balioa

“Ogiaz gain beste zerbait ere behar du gizakiak, bizitzeko”. Bai, premia nagusiak jatekoa eta jantzia izan arren, beste zerbait gehiago ere behar izan du eta behar du gizakiak, biziko bada; adibidez, kultura.

Gizakiak sortutako guztia “kultura” denez, komeniko da bereizketa egitea: gauza premiazkoak eta ez-premiazkoak, hori ere erlatibo den arren. Bien arteko aldea nabarmendu nahi dudanean, beti adibide bera etortzen zait burura, Unamunoren ateraldia: “zein ederra den aterki irekia, begira egoteko!”. Horixe da kultura, begiratu batera inolako premiarik gabe gizakiak sortzen duena; nahiz eta inolaz ere ezin den ulertu gizakia kultur sormenik gabe.

Hiru alor nagusi bereziko nituzke: zientzia, kultura eta erlijioa. Mende luzeetan zehar zientzia eta artea dirudunen mende egon dira. Erlijioa zen txiroen esku zegoen bakarra, bere paradoxa eta kontraesan guztiekin. Erabat egia ez bada ere, onar dezagun, gero, zientzia jakintsuen eskuetara pasatu zela, kultura popularizatu egin dela, eta erlijioak eragina, neurri handian, galdu egin duela. Onar dezagun, era berean, arte-sortzaile guztiak ez zirela dirudunak, baizik eta baita pobre askoak ere tartean, nola literaturan ala musikan edo pinturan, etab. Luzea da indigentzian hil diren artisten zerrenda, eta ez hain aspaldi ere, momentu honetan poeta euskaldun bat datorkik gogora. Baina beti aberatsek manejatute artearen negozioa. Zientziarena ere bai, gutxiago bada ere.

Dena den, aberats guztiak, hobeto

esan, garai guztietako aberatsak ez dira berdinak izan. Esate baterako, XVIII. mendeko aberatsak bere burua formatzeko eta disfrutatzeko mediotzat hartzen zuen artea, adibidez musika, pintura eta literatura. Gaurko aberatsa, sarritan, oso diferentea da: gutxi irakurtzen du, koadroak erosi eta galeria bat montatzen badu, ez da «aterkiari begiratzeko», baizik eta «aterkia erabiltzeko», hau da, etekina lortzeko eta exhibizionismo hutserako.

Eta zer gertatzen da kultura (arte) popularizatzen denean? Hasteko, ente publikoak bihurtu direla kulturaren bultzatzaile eta diru aldetik laguntzaile. Kultura popularizatzeko ere negozioa esan nahi du, gaur beste era batean definitu arren: lanpostuak sortzea. Eta krisi garaian zer egin behar da kulturarekin? Subentzioak murriztu eta jendea langabezira bota? Nire ustez, ez. Krisi garaian askoz errazagoa da lanpostuak sanitatean, zerbitzu sozialetan, irakaskuntzan, euskaltegian edo kultur arloan sortzea. Zoritxarrez, alderantzizkoa gertatzen da, ordea. Sanitatean edo irakaskuntza zailagoak dira murrizketak, baina kulturari segituan sartzen zaizkio guraizeak. Ez dago ondo hori egitea.

Gizakiak mundua mundu denetik praktikatu du artea; bere izaera sortzailearen arrastoak alde guztietan utzi ditu, kobazulotik hasi eta gure egunetaraino. Bere barneko bizipenak, sentimenduak, usteak eta sinesteak kanporatu nahi izan ditu. Esan genezake bide espiritual bat egin duela, berez ezertarako «balio» ez duten objektuak sortu eta haietan bere espiritua islaturik. Unamunok arrazoi zuen: zein ederra de aterkia, begira egoteko.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierri hitza 27 euro Egin bat GOIERRIKO hitza 67 euro
aukeratutako kaxan

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierriarra, Urbialde plaza 7
behea, Beasain

Goierri hitza + GOIERRIKO hitza 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Iraganeko itsas mailaren aldaketak (I)

Biztanleriaren zati handi bat kostan edo kostatik gertu bizi denez, itsas mailaren aldaketak ikuspuntu geologikotik ikertzea interes handikoa da. Itsasertzaren aldaketak faktore ezberdinek kontrolatzen dituzte: mundu mailako itsas mailaren aldaketak, sedimentua egoitea, tektonika, arro geologikoaren forma eta baldintza klimatikoak, besteak beste.

Leku ezberdinetan itsas mailaren aldaketak ikertzea interesgarria da, guztiak bateratzean mundu mailan izan diren aldaketen berri ematen baitute. Hauekin batera plaka-tektonika ikertzen bada, baldintzen aldaketen ondorioz etorkizunearan zer gerta daitekeen aurreikus daiteke.

Itsas mailaren aldaketak sedimentuetan

Ikerketa zientifikoen arabera, XX. mendean eman den itsas mailaren gorakadaren azelerazioa gizakien jardueren ondorio zuzena izan da. Honek eskala geologikoan

eman diren aldaketen ikerketaren interesa bultzatu du. Gaur egungo itsas mailaren aldaketak ulertzeko azken 10.000 urteetan erregistro geologikoan itsas maila nola aldatu den aztertzen da fosil mikroskopikoen bidez. Sedimentuetan karbono 14 isotopoaren birtatez egindako datazioez lagundurik, zehaztasun handiko itsas mailaren berriariki penak egiten dira.

Ikerketa Euskal kostan

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikerketa talde batek Euskal Herriko itsasertzaren azken 10.000 urteetako aldaketak ikertu ditu. Euskal itsasertza aukeratzaren arrazoia bere posizio estrategikoari dagokio, beste ikerketa batzuekin konparatu ahal izateko. Lehenik eta behin, antzeko ikerketa gehien egin den ingurua Ipar Atlantiar ozeanoa da, batez ere Estatu Batuetako kostaldean. Bestalde, Britainia frantsesaren eta Lisboaren (Portugal) arteko

puntuak kokatzen da, hauek ere aski ikertutako bi zona direlarik.

Euskal kostako bi estuario aukeratu dira ikerketa garatzeko: Bilboko itsasadarra eta Urdaibaiko estuarioa. Bi leku hauetan EHUko ikerlariak zundaketa ugari egin dituzte hauen geologia eta fosilak ikertuz, itsas mailaren eboluzioa aztertu ahal izateko.

Ikerketa hauetatik azken 8.500 urteetako itsas mailaren altueraren 61 puntu lortu dira eta hauek denboran zehar kokatuz, kurba grafiko bat lortzen da. Datu hauek Britainia frantziarren eta Lisboako datuekin konparatzean, eskala handian itsas mailak zer egin duen ikus daiteke. Ikerketa hauen arabera, hegoaldean (Lisboan) itsas mailaren igoera iparraldean baino lehenago gertatu zela ikus daiteke.

Euskal kostako datuen arabera, itsas mailaren igoeraren abiadura oso azkarra izan zen duela 8.500 eta 7.000 urte artean. Duela 7.000 urte gutxi gora behera, igoeraren abiadura moteldu egin zen, gaur egun dugun mailara iritsi arte duela 5.000 urte. Ikerketa hauetan iraganean emandako klima aldaketak edo gizakiak eragindako aldaketak ere agerian geratzen dira. Adibidez Txingudiko estuarioko hanean erromatar garaian eman zen meatzaritza jarduera erregistratu zen.

Eduardo Leorri eta
Alejandro Cearreta

JAKIN BEHARREKOAK

Alemaniak Monsanto-ren arto transgenikoa debekatu du. Ilse Aigner, ekonomia ministroak, esan duenez, ikerketa berriek baieztatu egin dute ingurunean sortzen duen kutsadura. Alemania, Frantzia, Grezia, Austria, Hungaria eta Luxenburgoko herrialdeek debekatu dute arto mota hau. Europa Batasunean Espainiak bakarrik landatzen ditu tranzenikoak maila handian.

'Dos Mares' autopistaren ingurumen inpakto negatiboa izendatzea eskatu diote Ingurumen Ministeritzari Cantabriako talde ekologista guztiak. Cantabria eta Ebroko bailara lotu nahi duen autopista honek 17 interes komunitarioko gune eta 8 ZEPA zeharkatuko lituzke.

Martxoak 24 Etxegaraten kamioi batek aluminio polikluroa isuri zuen, kalteak 18.000 eurotako kostua dutela esan du Aldundiak. Ursuaran erre-kara iritsi zen isuria eta espezie ezberdinetako 2.000 arrain hil zituen. Fauna berri bere kaxa berreskuratuko dela azaldu dute.

Zaragoza-Iruña AHT tren egitea Nafarroako osasunerako aurrekontua baino handiagoa da, eta gizarte arazoetarako aurrekontua baino hiru aldiz handiagoa.

Azken 7.000 urteetan gertatu den itsas mailaren gorakadaren abiadurarekin konparatzen badugu, XX. mendean eta bereziki azken urteetan ari da gertatzen itsas mailaren igoeraren abiadura azkarrena.

Denetik (XIX)

Maizpide euskaltea

Kerejetak bi metro neurtzen dituela?

Neurriak adierazteko garaian, gaztelaniaren kalkoak direnak erabiltzeko joera dugu maiz (izenburuari erreparatu besterik ez dago). Kontua da euskaraz badugula bestelako baliabiderik. Ikusi, bestela:

- ✓ Kerejeta lazkaotarra bi metro luze da (zuzen)
- ✓ Obol horrek bost metroko luzera dauka (zuzen)
- ✗ Obol horrek bost metro neurtzen ditu (oker)

Galdera egiteko garaian ere...

- ✓ Zein da obol borren neurria? (zuzen)
- ✓ Ze neurri du obol horrek? (zuzen)
- ✗ Zenbat neurtzen du obol horrek? (oker)

“Garrantzitis”

Badirudi, Cervantes-en hizkuntzaren eraginez-edo, gero eta maizago erabiltzen dugula garrantzitsu hitza euskaldunok. Larramendik asmatutako hitz hau zernahitarako hitz bilakatu da, edozein esalditan txertatzen dugun “hitz garrantzitsu”...

Hi, Perez, kendu hadi nire hankapetik! Hil ala bizikoa duk, ez didak sinetsiko!

Nire hizkuntzan hitz egiten oraindik ez dakien arren, garrantzitsua da bi metro luze den proboszideo honek bere sentimenduak adieraztea



“Dunbourdin” elefantea “Perez de Goikoetxea” sagutxoaren beldur omen da...

- ✗ Euskal Herrian langabeziak igoera garrantzitsua izan du azken hiru hilabeteotan (oker)
- ✓ Euskal Herrian langabeziak gora egin du nabarmen azken hiru hilabeteotan (zuzen)
- ✗ Gure bizilagunek oso arazo garrantzitsua dute labezomorroekin (oker)
- ✓ Gure bizilagunek sekulako arazoa dute labezomorroekin (zuzen)
- ✗ Joan den bilean istripu garrantzitsua izan zen Itsasondon eta bi lagunek galdu zuten bizia (oker)
- ✓ Joan den bilean istripu larria izan zen Itsasondon eta bi lagunek galdu zuten bizia (zuzen)

Hizkuntzak “menperatu”?

Baskoiek Karlomagnoaren gerlariak Orreagan menperatu zizutela ondotxo dakigu. Baina “menperatzen” al zuen bere bizia guda horretan galdu zuen Karlomagnoaren seme Roldanek euskara? Ez dakigu (ziur asko, ez zuen jakingo!). Badakigu, ordea, galdera hori ez dela euskaraz zuzena, hizkuntzak ez baitira menperatzen, hitz egiten dira edo jakin egiten ditugu!

- ✗ Roldanek ez zuen euskara menperatzen (oker)
- ✓ Joxe Lizasok primeran hitz egiten zuen euskaraz (zuzen)
- ✓ Roldanek ez zekien euskaraz; Joxe Lizasok, berriz, dotore egiten zuen (zuzen)

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Adi, lagunok, ohar garrantzitsua eman behar dizuet eta!
2. Hiromi Yoshidak, Tokion jaio arren, oso ondo daki euskaraz.
3. Zulo horrek hiru metroko sakonera du. Ramoniren “panderoa” bi metro zabal da!

OHARRA: gaur ere aparteko ahaleginik ez zenuten egin beharko, ezta? Denak dira zuzenak!

PREST

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MAIATZAK 21 - 17:30 osteguna *2.zikloa*
ARRASATE-MONDRAGON AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

MAIATZAK 21 - 18:00 osteguna
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata *2.zikloa*
ESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

Kutxa Zeharo: lan bila dabilzan pertsonen eta enpresen zerbitzura

Kutxa Zeharo-ren xedea gizarteratzeke arazoak dituzten pertsonentzako lan-aukerak bilatzea da. Zumarragako bulegoak lehendabiziko urtea bete du apiril honetan, lan bila dabilzan pertsonen eta inguruko enpresen zerbitzura.

Kutxa Zeharo-ren lantaldeak giza-baliabideen gaian duen ezagutza zabala baliatzen du Gipuzkoako enpresek arlo honetan izan dezaketen beharra asetzeko. Honetarako, bere lanpoltsa propiotik arreta handiz aukeratu eta aurkezten ditu lan bakoitzerako egokienak izan daitezkeen pertsonak, enpresei langile adituen kontratazioa erraztuz.

Gure zerbitzua, bere osotasunean, Kutxaren Gizarterakintzak finantzatzen du eta Gureak Taldeko Zeharo Fundazioak kudeatu. Fundazioaren helburua hau da: ezgaitasunen bat edo lan-merkatuan sartzeko beste zailtasunen bat duten pertsonen sarrera hau ahalbidetzea, hala nola 45 urtetik gorako pertsonen, emakumeen, 30 urtetik beharako gazteei, prestakuntzarik gabeko gazteei, etorkinei, guraso bakarrei, epe luzeko langabezian daudenei... Honetarako laguntza zerbitzu bat daukagu, bila-

keta prozesua eta lanean jartzea errazten diena.

Zumarragako bulegoan, 2008ko apiriletik hona, 159 pertsonari eman diegu laguntza eta Urola eta Goierrri eskualdeetako 136 enpresa bisitatu ditugu. Honen emaitza 34 kontratazio berri izan dira.

Baina gure lana lanpostuak betetzea baino askoz gehiago da: enpresa bakoitzarentzako azterketa berezia egiten dugu. Izan ere, aholkularitza eraginkorra eta laguntza etengabea dira enpresekin dugun harremanaren giltza. Adibidez, INEMek eta Eusko Jaurlaritzak pertsona hauen kontratazioarako eskaintzen dituzten laguntzen informazio zehatza ematen diogu enpresari.

Kontratazioaren ondoren ere gainean gaude. Langile berriaren moldaketak hala eskatuko balu, esaterako, lehenengo egunetan lanpostuan bertan lagunduko genioke, gure Lan-Prestatzaileen bidez.

Eta hortik aurrera, jardueraren jarraipenari ere berebiziko garrantzia ematen diogu, enpresak eta langileak pozik jarrai dezaten.

Pertsonengandik eta enpresengandik hurbil egiten dugu lan, hurbiltasun hau delako erantzun bizkor eta malgu bat ziurtatzen duena beharizanen aurrean. 2004an proiektua martxan jarri zenetik, Kutxa Zeharok bost bulegoren bitartez eskaintzen du bere zerbitzua: Donostian, Arrasaten, Eibarren, Irunen eta duela urtebetetik hona, Zumarragan.

Zer da Kutxa-Zeharo?

Lanpostua bilatzen lagunduko dizun zerbitzua da. Kutxa-Zeharoko profesional-taldekoak ere zure helburu berbera dugu: zeure interesen eta aukera profesionalen arabera lanpostu bat izan dezazun laguntzea.

Zer eskainiko dizugu?

- ✓ Tratu pertsonala, zure egungo egoerari eta zure lanbide-profilari buruzko ahalik eta informazio gehien eskuratzeko; ondoren, modurik egokien orientatzen zaitzagun.
- ✓ Enplegu-aukeren bilaketa aktiboa, zuri informazio guztia jakinarazteko. Enpresetara joko dugu, zure lan-gaitasunak azaltzeko moduko enplegu eskaintzen berri jasotzeko.

✓ Banakako laguntza, gure bitartez parte hartzen duzun hautaketa-prozesuetan.

✓ Kutxa-Zeharok, zeuk hala behar izanez gero, eta behin enpresan hasten zarenean, zeure egokitzapen-prozesuan lagunduko dizu laneko lehenengo egunetan. Gure Lan Trebatzaileen bitartez egingo dugu. Trebatzaile horiek banakako trabakuntza-gaietan adituak dira, eta lanpostu bakoitzeko zereginak irakatsiko dizkizute langileoi.

Nola egiten da enplegu-eskaintza Kutxa-Zeharon?

- 1.- Zoaz hurbileneko Kutxa-Zeharo bulegora: gure harrera-langileak adieraziko dizu zer eskaera-orri bete behar duzun eta zer dokumentu erantsi behar dituzun.
- 2.- Ondoren, elkarrizketa baterako hitzordua emango dizugu, eta zure profilari eta interes profesionali buruzko informazioa bilduko dugu.
- 3.- Hortik aurrera, ahalegin ugari egingo dugu lana aurki dezazun; horretan lagunduko dizugu. Horretarako, zure lan-profilarekin bat datozen eskaintzei buruzko informazioa emango dizugu; izan ere, lan-aukerak bilatzen jardungo dugu etengabe.



kutxa



Maiatzaren 16an Olaberrian:

Goierriko Eskola Txikien festa

Duela bost urte bezala, Olaberrian ospatuko dute Goierriko Eskola Txikiek beraien urteroko festa. Aurten, berrikuntza nagusi bat izango da: egun osoko festa izan beharrean, arratsaldekoa izango dela. Kuttun Guraso Elkarteak jo eta ke ari

da festa antolatzen, eguneroko lanak ahaztu gabe. Lau urte bete ditu aurten Kuttun Guraso Elkarteak, eta 12 urtera arteko hezkuntza eskaintza sortzea eta Olaberrian jaiotako haurrak herri eskolan geratzea dira momentuan dituzten erronkarik nagusienak.

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
UNIBERTSITATE MAILA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldean)
www.ikaskide.net

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Maiatzaren 16an, arratsaldeko 4,15etan hasiko da V. Goierriko Eskola Txikien festa. Olaberrian izango da, txandatuz egiten baitute Eskola Txikiek dituzten lau herriek. Alegia, Olaberria, Gabiria, Zerain eta Itsasondo.

Aurten dena den, festa xumeagoa antolatu dute, Kuttun Guraso Elkarteak lehendakariak, Leire Azkonak zehaztu digunez: "maiatz-ekaina aldera festa asko pilatzen dira eta aurten erabaki dugu, egun osoko festa bat egin beharrean, arratsaldeko egitaraua antolatzea. Gipuzkoako Eskola Txikien festa eta Eskola Publikoaren festa ekainean izaten dira, ikastetxeetako ekintzak ere bai...". Festarekin jarraitzea beharrezkoa ikusten dute olaberriarrek: "Eskola Txikietako haurrak elkarrekin egoten dira, irteerak eta beste zenbait ekintza batera egiten dituzte baina gurasoen aldetik ere lotura hori mantendu nahi dugu, elkarren esperientziak trukatzeko".

Olaberriin

Aurten Olaberriak hartu du festaren antolakuntzaren ardura eta bertako egoera gertuagotik ezagutu nahi izan dugu, Kuttun Guraso Elkarteak sortu zela 4 urte bete direnean.

25 haur dabilta eskolan eta datorren ikasturtean 31 izango dira. "Haur kopurua



Goierriko Eskola Txikien Festak urtez urte:
2005ean, Olaberriin; 2006an, Zerainen; 2007an, Gabirian; eta 2008an, Itsasondon.

Goierriko Eskola Txikiak

Goierriin lau Eskola Txiki daude. Guztira, 124 ikasle ikasten dute bertan.

Olaberria: 25 ikasle (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. Zikloa).

Zerain: 12 ikasle (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. Zikloa).

Gabiria: 50 ikasle (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).

Itsasondo: 37 ikasle (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza).

Egitaraua

16:15ean: harrera.

17:00etan: Apika pailazoak.

18:00etan: merienda, Dj-a eta herri bakoitzeko eskolako umeek prestatutako ikuskizunak.

19.30etan: Olaberriko eskolak Zeraingo eskolari lekukoa pasatuko dio

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain gipuzkoa
www.xetai.net



Hilean behin, ekintza edo irteera bat antolatzen du Kuttunek, herria ezagutzeko helburuz. “Iaz, astebukaera bat pasatzera joan ginen. Santa Kutz eguna ere ospatzen dugu...”

goraka doa. Haur Eskola irekitzeak asko lagundu du. Haurrak hasieratik herrian geratzen badira, gero bertan jarraitzea errazagoa izaten da. Orain arte herritarrek Haur Eskolara haurrak herri-kanpora eramaten zituzten eta kasu horietan zaila izaten da itzultzea. Haur Eskolan, momentu honetan 14 haur daude”, adierazi du Leire Azkonak.

Olaberrian joera handia egon da eta dago haurrak Lazkaoko edo Beasaingo ikastetxeetara eramateko. “Haur Eskola izan arte, asko kanpora joaten ziren, Lazkaora edo Beasaina. Olaberriko umeen %75 herrian bertan gelditzea lortu dugu eta oraingoz amets bat bada ere, %100 herrian geratzea dugu helburu. Haur Eskola irekitzea bezain garrantzitsua izan da Udalaren dirulaguntzari esker martxan jarri ditugun zerbitzuak; zain-

tza zerbitzua eskola egunean, aste santuan eta uztailean, jangela, garraioa, antzerki tailerra, ingelesa, igeriketa, ... , hau da, edozein herri handitako eskola batek izan ditzaken zerbitzu guztiak eta hau, asko eskertzen dute familiek. Momentu honetan pribilegiatu batzuk garelako uste dugu eta eskerak eman beharrean gara proiektu honetan sinestu duten guztiei. Batetik, proiektu martxan jarri zuten gurasoei, bidea irekitzea tokatu zitzaizen eta denok dakigu horrek zer suposatzen duen, beste batetik, gudan

eta proiektuan konfidantza jarri duten familiei, momentu horretan errezena beste erabaki bat hartzea zelako eta azkenik, Olaberriko udalari, bere laguntza eta babesik gabe oso zaila izango litzakelako martxan jarri ditugun hainbat eta hainbat zerbitzu martxan jartzea. Oraindik egiteko asko dago eta ezinbesteko izango da denon arteko elkarlana zehaztutako helburuak lortu ahal izateko. Momentu honetan haurrak herrian eskolatzeak ez du inolako hipotekarik suposatzen ez haurra ezta familiarentzat ere,

izatekotan ere kontrakoa, eta aldi berean herriari berealdiko bizia ematen dio. Umeek beste herrietako eskoletara joanez gero bizia beste herrietan egiten dute eta azkenean, ez dira ez hangoak, ez hangoak... herri-nortasunik gabe gelditzen dira”, gaineratu du Leire Azkonak.

12 urtera artekoa helburu

Olaberriko eskola indarra hartzen ari da eta eskola txikien filosofiaren alde egiten dutenak gero eta gehiago dira. “Ez da erraza izan eta faktore ezberdinen eragina izan dela ezin dugu ukatu. Batetik, herrian egin diren etxebizitzak: honek inguruko herrietatik bikote eta familia gazteak erakartzeaz gain, herriko gazteak ere bertan geratzea ahalbideratu du eta beraiekin noski haurrak. Bestalde, Haur Eskola irekitzeak: zalantzarik

Olaberriko haurren erdiak herrian geratzea lortu dugu. Haur Eskolak eragina izan du horretan.

gabe gertutasunak batetik eta kalitatezko zerbitzua bestetik, ez bakarrik bertako familiak beraien haurrak Olaberrian uztea, baita inguruko herrietako zenbait familietako haurrak ere Olaberriera erakarri ditu.

Herri eskolari dagokionez berriz, inolako zalantzarik ez dugu, eskolaren inguruan jarritako zerbitzu guztiek oso eragin positiboa izan dutela familien erabakietan eta azkenik, eskola bera eta eskola txikien filosofia ezagutzera emateak. Gero eta gehiago dira, eskola txikien filosofia eta metodologian sinesten dutenak, guk nahi adina ez badira ere, eta hauek ezagutzera emateak, eskolak nola funtzionatzeko duen ezagutzera emateak, irakasle eta gurasoen artean dagoen koordinazio eta harremanak ezagutzera emateak eta nola ez, gaiaren gainean egiten ari diren ikerketak eta hauen emaitzak ezagutzera emateak, pixkanaka-pixkanaka familien pentsamoldeak aldatzen ari dira eta hau da gure beste erronka bat, Olaberriarrei orokorrean eta adin txikiko haurrak dituzten familiei bereziki gure herriko eskola eta bertan egiten diren gauzak ezagutzera ematea”.

Indartsu egoteak, aurrera begira jartzea ere ekarri die olaberriarrei. “Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa ematen da baina, Lehen Hezkuntza osoa bertan egiteko aukera nahi dugu gure haurrentzat eta posible dela uste dugu. Batetik, haur kopuru, xumeki bada ere, etengabe gorantz ari delako eta bestetik, orain arte Olaberrian horrela izan ez bada ere, normala delako Eskola txikietan 12 urtera arteko eskaintza ematea.”

Zikloak zabaltzeko prozesu horretatik pasatutako gurasoen esperientzia ere jaso nahi izan zuten erronka bota aurretik. “Altzo eta



Olaberriko belaunaldi ezberdinak topalekua

Festa ez da maiatzaren 16ra mugatuko. Hurrengo egunean, herritarren festa izango da, Olaberriko eskolan ibilitakoekin topagunea egin nahi dute. “Olaberriko eskolan ibili diren ikasle eta irakasleen festa antolatuta dugu, maiatzaren 17an. Bazkaria egingo dugu. Argazki zaharrak ere biltzen ari gara, erakusketa bat egiteko. Belaunaldi ezberdinak elkartuko dira. Denok gustokoa dugu eskolako oroitzapenei buruz hitz egitea eta eskola garaia gogoratzea”, azaldu du Leire Azkonak.

Abaltzisketako esperientziak jaso ditugu, jendeak zalantzak baititu eta egia esan, genituen beldurrak uxatzeko oso baliagarriak izan dira guraso hauen bizi-penak.

Zehaztu ditugun helburuak betez gero, oso denbora laburrean arazo berri baten aurrean izan gaitezkeela pentsatzen dugu. Gaur egun eskolak kokatuta dauden udal lokalak txiki geratu daitezke eta ondorioz eraikin berri baten beharra sortu daiteke. Hori horrela izanik, udala ere lanean hasi da jadanik eta arau subsidiarioetan eskola berriaren kokalekua zehazteaz gain, lur sail hauek erosi ditu da-

Eskolaren
eraikin berria
egiteko lursaila
erosi du Udalak.

goeneko, guretzako berri pozgarria benetan”, zehaztu du Azkonak.

Eskola Txikien alde

Helburuen lorpenerako egin beharreko bidea zaila eta neketsua den arren, lanean jarraitzeko prest dago

Kuttun Guraso Elkarteak. Eskola Txikien abantaila pedagogiko eta afektiboak nabarmendu ditu Azkonak: “Adin desberdinetako haurren arteko interakzioak oso aberatsak dira ikasketa prozesurako eta beraien arteko harremanak ere oso aberatsak dira. Bestalde, haurrek herrian, bere ingurunean hazten dira eta horrek herriaren nortasuna indartu eta garatzeko ezinbestekoa da. Guraso eta irakasleen arteko harremana ere estuagoa da. Azkenean, denok gertutik parte hartzen dugu gure seme-alaben heziketan. Elkarrekin hazi, hezi eta bizi”.

Zegama, zeramikaren museoa bihurtzea helburu



Intxausti Berri errota funtsezkoa zen Zegamako zeramika fabrikazioan. Uraren indarrari esker, zeramikagintzarako erabiltzen zen minerala ebotzen zuen, baita buztina irabiatu ere.

Zegamak lotura handia izan du zeramikarekin. Gipuzkoako azkeneko eltzegile edo buztingilea, Gregorio Aramendi zegamarra izan zen. Buztingintzarekin lotutako ondarea aberatsa da oraindik ere eta Zegamako Udala berreskuratzen ari da pixkanaka. "Intxausti hor dagoela denok genekien, Gregorio Aramendi izan zen Gipuzkoako azken buztingilea, eta Intxausti barruan labea zegoela denok genekien. Ez genekiena zen, labearen ondoan dagoen etxea, sekaderoa dela. Pareta itxita dauzka orain, baina nik beti ezagutu dut, egurrezko biga batzuekin eta irekia, mandio ireki bat bezala. Gregorioren aitona ontziak lehortzen uzteko egin zuena, labean sartu aurretik. Beste errotatxo hidraulikoa ere badago, barniza eta buztina ehotzeko. Hori orain dela 3-4 urte berreskuratu genuen. Altxibarren ere beste labe handi bat dago, teilak erretzeko. Hori orain ari gara berreskuratzen. Azpiegitura aldeetik, Zegamak oraindik ondare handia duela ikusten da. Beti ari ginen pentsatzen, azpiegitura hori edukita, zerbait egin beharko litzatekeela. Zeramikaren alorrean Zegamak beti zer esan handia izan duela oinarritzat hartuta, udal honen, gaur egun eta etorkizunean ere, ondare hau baliolan jarri eta gaur egungo zeramikagileekin lan egitea erabaki du", adierazi du Edurne Albizu, Zegamako alkateak.

Lan horretarako bide laguna aurkitu dute zegamarrek: Euskal Keramikagile Garaikidea elkarte.



Edurne Albizu, Nerea Tauschke eta Oibana Zubizarreta Zegamako zeramika ontzien erreplikak ondoan.

Zegama eta zeramika

Edurne Albizu, Zegamako alkateak emandako datuen arabera, Zegaman, zeramika, ontzigintza edota buztinarekin loturiko ofizioak ez dira berriak. Gutxienez hiru ontzigintza eremu zeuden Zegaman, Azurmenditarrek, Arrizabalagatarrek eta Arregi-Aramenditarrek. Antzinatik, ontzigile eta teileriak garrantzi handia izan dute Zegaman eta horren lekuko dira, gaur egun Zegamak eskuartean dituen buztinari lotutako ondareak. "Garrantzitsuen, Intxausti baserria, bertan, Gipuzkoako azken ontzigileak (Gregorio Aramendi zenak) utzi digun memoria historikoaz gain, ontziak erretzeko labea, eta bere aitona erakitako errotatxo ditugu, errota hau, buztina ehotzeko eta ontziei eman beharreko barniza prestatzeko erabilia izan zen. Buztina ehotzeko errota, egoera txarrean zegoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Zegamako Udalak, birgaitu zuen aurreko legealdian, eta gure asmoa aurten martxan jartzea da, zegamar eta Zegamara datozen bisitariari erakusteko. Bestalde, Udalak, Altxibargo teileriko labea ere erosi zuen eta, ondare garrantzitsu hau ere, birgaitzen ari gara Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Arantzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin".

ren azkeneko asteburuan, adibidez, I. Zeramika Topaketak egin zituzten. "Aurtengoa, abiapuntua da izan ere, alor honetan lan egiteko prest baikaude. Hasiara besterik ez da. Zegamak, zeramikarrien artean dau den ikuspegi ezberdin eta berritzaileak bildu nahi ditu bere altzoan eta bakoitzari bere nortasuna emanaz eta

aitortuz; horretarako elkarlana bultzatuko du, zeramika tradizionala eta garaikidearen ikuspegiak indartuz, gizarteratuz".

Zegamako ontzien erreplikak

Lehenengo topaketa hauei begira, Zegamako zeramika ontzien erreplikak egin dituzte. Arabako Ollerisko

Euskal Ontzigintzaren Museo Blanco Gomez Segurak egin ditu. Anduetza egur museoan daude salgai eta ikusgai. "Gipuzkoako Foru Aldundiak katalogatuta dituelako izan da posible erreplikak egitea. Neurriak, marrazkiak... dena dago katalogatuta. Guretzat, deskubrimendu handia izan da. Herri bakoitzak ere mode-

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Gregorio Aramendi, Gipuzkoako azken buzingilea.

“Buztingilea zela esatea lotsagarria omen zen”

I. Zeramika Topaketetan, Gregorio Aramendi buzingileari buruzko hitzaldia izan zen. Berarekin lanean aritukoak eta garai hartan buzingintzan ibili ziren hainbat kide bildu zen. Edurne Albizu alkatea eta Anduetza Zur museoko Nerea Tauschke eta Oihana Zubizarreta hantxe izan ziren eta bertan bildutako kontuak kontatu dizkigute.

Hasteko eta behin, “alfareroa zela esatea lotsagarria omen zen, baserritarra baino baxuagoa. Oso ofizio bajua zen. Baserritarra hobeto ikusita zegoen alfareroa baino. Iparraldeko jendea edo Espainiako jendea etortzen omen zen. Kanpotik etortzen zen jendea: Zamoratik, Valladolidetik...”

Martin Catalina da horren adibidea, “Valladolideko Arrabal de Portillo herrikoa da. Gregoriok hango udaletxera bidali omen zuen eskutitz bat, alfarero ofizial bat eskatzeko. Zortzi eguneko probarako etorri omen zen. Bertan gelditu zen. Familia ekarri zuen han baino askoz ere gehiago ordaintzen baitzen. Lau-bost urte egin omen zituen alfarero bezala lanean eta plastiko gai hau hasi zenean eta gainbehera etorri zenean, Gregoriok berak ez zeukanez langile bezala mantentzeko modurik, Udaletxean aguazil postua libre gelditu zen eta berak hartu omen zuen aguazil lana. Zegamako aguazila izan zen 1991. urtera arte”.

Bihurrikeriak

Oihana Zubizarretaren familia, Intxausti Berri baserriaren auzokoa da eta gurasoei entzundako bitxikeria kontatu digu: “Aitona-eta ibiltzen omen ziren otea biltzen, labean sua egiteko. Aitonaren anaien bat bihurri samarra izan behar zuen eta autobusak garrafoietan ardoa eta anisa eta ekartzen omen zuen. Garrafoien bat erori eta putzuren batetik anisa edan omen zuten, izugarrizko mozkorra harrapatu eta Intxaustira joan eta makila batekin, lehortzen zeuzkan ontzi denak puskatu omen zizkion. Kaltea ordaintzeko, ez dakit zenbat denboran, otea ekartzen aritu behar izan omen zuen”.

Buztina mota ezberdinak

Herriko hiru lekutatik ekartzen omen zuten buztina. “Zer egin behar zuten arabera, buztin ezberdina erabiltzen omen zuten. Sutarako ontzietarako harea nahasten omen zitzairen. Hemengo buztina ez omen da ona sutarako. Behe aldetik ekarri eta hemen esmalte txuria jartzen omen zitzairen”.

loa egiten zuen. Margotze-ko modua ere, norberak berea. Kirtena ere bakoitzak bere erara egiten zuen... Zegamako ontzien koloreak, urdina eta berdea dira. Kolorea duten ontziak konbentuetan-eta egoten ziren”, argitu digu Albizuk. Erakusketan, Diputazioak utzitako hainbat pieza, original, ikusgai dago maiatzaren 10era arte.

Dagoen ondarea salbatzea

Topaketa hauei esker, “jendea orain hasi da deskubritzen. Herriko jende askok ez daki zer daukagun”, adierazi du Egur Museoko Nerea Tauschkek.

“Helburua da, ahal den neurrian, herriko ondarea salbatzea. Etxeetan dauden ontziak bota beharrean, gordetzea eta jendea kontzientziatzea. Datorren urtean, zeramikaren Zaharkinak egitea pentsatzen ari gara, herrian zer dagoen katalogatzeko, ondarea baloratzeko. Oso material gutxi dago bilduta. Polita litzateke, herrian horrelako bilketa lan bat egitea eta herrian bertan gelditzea. Memoria historiko hau berreskuratu behar dugu. Horixe jarriko nuke epe laburreko asmo bezala: Zaharkinak egitea, herriko zeramikako ondarea identifikatzea eta herritarrak kontzientziatzea, ez botatzeko. Eta bestetik, ezagutzera eman. Herrian modelo bat badugula eta beraiek etxean daukatena herrikoa bertakoa dela, eta ez botatzeko. Premiazkoena hori da.”, gaineratu du Albizuk.

Epe luzeragoko asmoak ere badituzte: bisita gidatuak, umeentzat tailer bat sortzea... “Haurrekin tailerak antolatu nahi ditugu, ikastetxei eskaintzeko. Bisita gidatuak egiten hasiko gara ekainean. Denborarekin, errota mugimenduan ikusiko da. Teileriarekin lotzeko aukera ere izango da.

Oso leku gutxitan kontserbatzen da teilak egiteko azpiegitura”, diote zegamarrak.

Eta oraindik ere, luzeagoko helburua ere zehaztu digu Zegamako alkateak: “egunen batean mugimendu handia sortzen baldin badugu zeramikaren inguruan, Diputazioan dauden piezak herrira ekartzea eta herriko piezekin museo bat sortzea”.

Zegama, zeramikako erreferente bihurtzea nahi ote duten galdetu diogu: “nik uste dut aukerak badiugu. Ondare aldetik erreferenteak gara, eta historikoki ere bai. Falta zaiguna da, berriro berreskuratzea. In-txaustiko errota txiki hori, bakarra da Euskal Herrian”.

Herriko ondarea
salbatzea da
helburua.
Zeramikaren
Zaharkinak egitea
pentsatzen ari
gara, herrian zer
dagoen
katalogatzeko.



Erakusketak, maiatzaren 10era arte

Bi zeramika erakusketa daude ikusgai Anduetza Egur Museoan, maiatzaren 10era bitartean. Batetik, ‘Euskal herri buztzingintzari’ buruzkoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak utzitakoa, eta Gregorio Aramendiren piezekin osatua, senideen eta Zegamako bizilagunen bitartez lortuta. Piezak, etxeko tresnak dira, hala nola, pegarrak, platerak, ontziak...

Bigarren erakusketa zeramika garaikideari buruzkoa da: ‘Bilakaera’. Euskal Keramikagile Garaikideko zeramikagileek egina da. Bertan bederatzi lan ikus daitezke, elkarteeke kideek bana jarrita. Piezak gres eta portzelanaz egindako eskulturak dira, eta diseinuak eta sormenak zeramikaren ikuspegi eta mezu berri bat eskaintzen dute, egileen behar plastikoak eta sormenezkoak bideratuz. Parte hartzaileak, hauek dira: Ines Gonzalez de Zarate, Ione Urain, Javier Berasategi, Koro Martinez, Loli Pinedo, Maite Salutregi, Ramon Berraondo, Reyes Guillen eta Txaro Marañon.

A SE PLAN S.L.
A H O L K U L A R I T Z A · E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERCANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

 www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**


ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Intxausti Berriko errota, uraren indarra buztingintzaren zerbitzura



Intxausti Berri errota funtsezkoa zen Zegamako zeramika fabrikazioan. Uraren indarrari esker, zeramikagintzarako erabiltzen zen minerala ehotzen zuen. Aldi berean, uraren indarrez baliatuta, mekanismoaren erdiko ardatzak kanpoko arraska bateko palak mugitu, eta buztina irabiatzen zuen, buztingintzako lehengai nagusia.

Francisco Jose Arregik eraiki zuen errota 1850. urtean. Errotan eskuratzen zuen esmaltearekin egiten zuen zeramika, gaur egun oraindik zutik dirauen Intxausti baserrian, errotatik hurbil. Haren biloba Gregorio Aramendi izan zen Zegamako azken buztinlaria; 1940. urtean utzi zioten errotan lan egiteari.

Errotaren funtzionamendua

Errotaren albotik igarotzen den errekatik ura hartu, eta kanal baten bidez desbideratzen zuten, andelaren edo antapararen hornidura bermatzeko. Andelen gillotina formako zurezko konporta bat dago; hura jasotzean, hodi edo kanal txiki batetik igarotzen da ura, eta errotaren azpiko hutsunean dagoen gurpilera erortzen da. Gurpil horrek 25 pala ditu, eta urak saihetsetik jotzean eragiten dion indarrak birarazi egiten du. Turbina hidrauliko hori (gurpila) burdinazkoa da, eta egurrezko ardatz bertikala du, turbinaren mugmendua errotaren gainaldeko ehotzeko harrietara igarotzeko.

Urak gurpila mugitzen zuen, errotazio-bira egiteko, eta hori bera egiten zuen erdiko ardatzak ere; hala, bira hori zela eta, kanpoko irteera-kanaletik ibairaino joaten zen ura berriro. Erdiko ardatzak helerazten zuen mugimendua gainaldera, eta bi uztarriren bidez ardatzari lotuta zegoen zirrindola-harria mugiarazten zuen. Harri horrek harri edo errotarri finkoaren gainean bira egiten zuen. Ardatz bertikalaren eta zirrindola-harriaren arteko

hutsune zirkularretik isurtzen zen minerala, eta bi harrien marruskadurak ehotzen zuen.

Erabilitako materialak berun eta eztainu ugari zuen, eta bi harrian arteko marruskaduraren ondorioz ore bat ateratzen zen, ehotzean ura gehitzen baitzen. Likido hori azpilaren behealdeko zulotik irteten zen, eta buztingintza-tailerrean eramaten zen, tratatzeko eta gero han egiten ziren zeramikazko objektuekin erabiltzeko.

Errotatik buztina irabiatzeko putzura helerazten zen mugimendua

Ardatz bertikalak pinoi pare bat ditu goialdean, eta, horien bidez, mugimendua transmiti zitekeen, horma zeharkatu eta errotaren kanpoaldeko beste pinoi pare batera helerazten zuen 90°-ko ardatz horizontal baten bidez. Bigarren pinoi pare horrek irabiatze-putzuaren gaineko ardatz bertikala mugitzen zuen, hiru altueratan jarritako hegal formako hiru burdinazko pala erabilia. Harraskak zulo bat zuen, lehortzeko harraska batera buztina dekantatzeko. Irabiatua eta dekantatuta egiten zen prozesua nagusiki, buztinaren ezpurutasunak eta kalitxeak kentzeko (nahi gabe buztinean sartzen diren harri txikiak dira kalitxeak; egostean, kiskali egiten dira, eta orduan piezak ez du balio).

Buztinaren irabiatzea

Lur-nahaste hau irabiatzen zuten: bost otarre lur gorri, bost otarre lur zuri eta hiru baldekada ur. Nahasteak txokolate likidoaren puntua lortzen zuenean, harraskaren hondoko zulo batetik beste harraska edo lehortzeko putzu batera isurtzen zen; han, ezpurutasunak hondora botatzen ziren dekantazio bidez. Tailerrean erabili aurretik, bi hilabete inguru uzten zen buztina lehortzen.



Antonio eta Itoitz Alustiza:

Bola-jokoa odolean

Enbor bereko ezpala esae-
ra zaharrak ederki isla-
tzen ditu Alustizatarrak.
Antonio eta Itoitz, Endika zena-
ren aita eta semea. Aitona-bilo-
bak, larunbat arratsaldero ari-
tzen dira Zeraingo bolatokian.
Adinaren esperientzia eta gazte-
aren besoen indarra uztartzen
dira bertan. Odolean daramate
bola-jokoa.



Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32




Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com

Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)





Antoniok 76 urte ditu eta Itoitzek 17. Aitona-bilobak dira. Bolariak. Tarteko belaunaldiko Endika ere, bolaria izandakoa, gaixotasun batek gure artetik eraman zuen arte. “Markak hautsitakoa zen, oso ona zen Endika. 17 urterekin, Euskadiko Txapeldun atera zen”, esan digu Antoniok. Antonioren aurreko belaunaldikoak ere bolariak ziren. “Aita eta osaba bai”.

Irakasle ona, ikasle hobea

Itoitzi, duela hiru urte sortu zitzaion bolatan aritzeko gogo. “Makinatxoarekin ibiltzea nahiago zuen ordu arte. Herriko neska batzuk entrenatzen hasi nintzen eta Itoitz ere etorri zen. Berak ere ikasi nahi zuela esan zidan eta halaxe hasi zen. Harrezkero, larunbat arratsaldero entrenatzen dugu Zeraingo bolatokian. Gustatu egin zaio eta gainera ondo dabil, gazteen mailako txapelketak irabaziz,

marka handiekin gainera. Segidan, 38 botata. 36 botatzea normala da, baina 38 zaila da”, adierazi du Antonio Alustizak.

Irakaslea gustura eta ikaslea ere bai. “Lehenengo aldiz, Zeraingo festetan tiratu nuen, hasi eta urte hartan. Gazteetan irabazi egin nuen. Behin irabaziz gero, gusturago”, adierazi du Itoitz Alustizak.

rol hau ez da bultzatzen eta. Ikasi gazte askok ikasten dute baina gaupasak hasten direnean, utzi egiten dute”, gaineratu du Antoniok.

Sariek ere ez omen dute bultzatzen. “Saririk ere ez dago. Sarrera bost euro kobratu eta hor ateratzen dena banatzen da. Laugarren egiten duenak 10 bat euro irabaziko ditu, eta gustura. Festetan sari hobeak jartzen

taldearekin aritzen da Itoitz, taldea ezin osatu ibili ziren eta. Gu ere ez gara herrian osatzen. Herrian bi bakarrik gaude gu. Hirugarrena, Tolosan bizi den zeraindar bat. Beste bat Zegamakoa, beste bat Ormaiztegikoa. Leku gehienetan dabilza horrela”.

“Lagunek esaten dute ikustera etorri behar dutela, baina ez daukagu nola etorri. Gida baimenik ez daukagu eta trenea iristen den leku bakarra, Legazpi da eta hor urtean behin izaten da”, gaineratu du Itoitzek.

Entrenamendua

Bota eta bota. Horixe izaten da bolarien entrenamendua. “Bat birla jartzen eta bestea botatzen, txandaka”, esan digu Itoitzek.

Aitonak sekretu guztiak erakusten al dizkio? “Bai. Nik ahalegina, erakutsi egiten diot”, erantzun digu. “Aritu egin behar da. Kirol guztietan aritu egin behar

Larunbat arratsaldero elkartzen dira aitona-bilobak Zeraingo bolatokian.

Poztasuna ere handia du aitonak. “Irabazten duenarentzako baino handiagoa igual”, dio aitonak.

Gazte gehiegi ez dabilen kirola da bola-jokoa. Jubilatuen kirola dela dio Antoniok. “Gazte gutxi datoz, ki-

dituzte. Afizioa behar da”, dio Alustizatarrek.

18 urtera arte, gazteen mailan arituko da Itoitz. “Orain ere aritzen da helduekin, taldeka, Hernaniko taldearekin”, kontatu digu aitonak pozik. “Hernaniko



da. Irabazteko bat izaten da. Kirol honetan, zorte gehiena duenak irabazten du. Kirol gehienetan faboritoak egoten dira, bolatan ez. Egun askotako lehiaketa bat baldin bada, orduan, bai, baina egun bakarrekotan edozeinek irabazi dezake”, adierazi dute.

Adinekoen esperientzia ala gazteen besoak, zer ote diren garrantzitsuagoa galdetu diegu Alustizatarrei. Antoniok, argi dauka: “Be-

soak hobe. Lehengo zaharrek esaten zuten, gizonak dominatu behar duela bolea eta ez boleak gizona. Gure buruari ere horixe ailegatu zaigu orain. Zaharrek esandako gehienak egiak dira eh?”.

Etxean abantaila

Herriz herri, bolatokiz bolatoki ibiltzen dira Alustizatarrak. Hori bai, etxean aritzen direnean, abantaila izaten dute. “Bolatoki batetik

bestera asko aldatzen”, diote.

Plazagizona izatea ere beharrezkoa da bolatan. “Bai, oso. Bola botatzen ari denaren ondora hurbilduz gero, urduri jartzen direla eta askok erreklamatzan dute. Hala ere, giro ona egoten da bolarion artean. Hasarraldiren bat edo beste ere bai”.

Zeraingo bolatokian bertan egin dugu elkarrizketa, eta bola joan beharre-

ko bidea ondo markatuta dagoela ikusi dugu. “Jendeak erraza den bezala ikusten dute. Batzuk konturatzan dira trukoa daukala baina beste batzuk esaten dute bidetik botatzea erraza dela. Beste aldetik hona, askok botatzen dute ondo. Baina alderantziz, gutxi”, dio Antoniok.

Garaiak aldatu dira

Garaiak asko aldatu dira eta bola ere bai. Batetik, bola-

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA



Arte egurra

Liztormendi Elkarteko ganbaran gordetzen dituzte birlak eta bolak. "Orain plastikozkoak dira. Horiek gastatu ere ez dira egiten. Legazpin egunero aritzen dira bolatan, gastatu ere ez dira egiten. Baina bolea, egurrezkoa denez, uretan eduki behar da. Uretan ez baduzu sartzen, pitzatu egiten dira. Txapelketetan bola onak ibiltzen dira baina festetan-eta, onak ez direnak ere bai. Arte egurrez egingakoak izaten dira bolak. Eskulekua, Altzako batek egiten ditu; torneatu, Ugarteberuk", azpimarratu du Antonio Alustizak.

tokiak, askoz ere gutxiago daude. "Zerainen 14 izango ziren. Gaur egun denera egongo dira 14!", diote Alustizatarrek.

Bestetik, gaur egun, bolatokiak estaliak dira. "Itxia ez den bolatokietan ez da txapelketarik izaten, eguraldiagatik. Gaztetan, inguru-

ko herrietako txapelketetara joaten ginen. Orduan, tapatutako bolatokirik ez zegoen hemen. Duela 60 bat urte, Aizpen izango zen tapatutako bolatoki bakarra. Herri denetan, irekiak ziren".

Parte hartzaileen adina ere aldatu da. Gaur egun, adinekoak ibiltzen dira batak bat. Kantitatea ere bai. "Partidak, festetan izaten ziren. Jende gehiago izaten zen. Orduan edozein lehia- ketetan 100 lagun biltzen ginen. Orain, 40. Haurren eta gaztetxoek jolasa izaten zuten bolajokoa. "Gure betiko jolasa bola-jokoa izan da.

Aritu egin
behar da.
Kirol guztietan
aritu egin
behar da

Igande arratsaldetan elkar- tzen ginen bolatan egiteko. Sei urtekin hasiko nintzen. 70 bat urte badaramazkit nik bolatan", gogoratu du Antonio Alustizak.

Bolak 8 kilo pisatzen di- tuela esan digutenez, 6 ur- terekin, 8 kiloko bola jaso eta botatzen ote zuen gal- detu diogu Antoniori: "sei urterekin, bola txikiagoekin aritzen nintzen, atzean gera- tutakoekin. Jauregiko hort- an aberatsak ziren eta han- go mutikoak txiki bat ba- zuen eta han ibiltzen ginen plazan".

Han-hemenka, bolari gazteak sortzen dira. Bola- jokoa etorkizuna ziurta- tuta ote dagoen galdetuta, ezker azaldu zaigu Antonio. "Aurki galduko da. Atzetik ez dator. Zaharrak hiltzen ari dira. Lehen ehunek tira- tzen zuten, orain 40k... Be- ti bajak izaten dira".



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

LURRALDEBUSeko istorioak

LURRALDEBUS

José Juan, 19 urte

"Oposizioak egitetik dator.
Ez du gau osoan lorik egin
eta orain lanera joan
beharra du."

Jatorria: Lasarte-Oria
Norakoa: Donostia Amara

Angel, 57 urte

"Bilera batera doa.
Jose Juanen adinekoa den
eta beti festarik festa
dabilen seme bat du."

Jatorria: Tolosa
Norakoa: Donostia Amara

www.lurraldebusekoistorioak.com



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >

Ordizia

Erdi Aroko azoka

Maiatzak 9, larunbata:

11:00etan: Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea: Juglaren kalejira, zaldunak, errege segizioa eta parte hartzaileak.

Plaza Nagusian azokari hasierako emateko deia. Azokako saltokiak zabalduko dira. Beira puzten, hargintza, forja-lana, larruginak, ehoziariak.

Zeramika-tailerrak, birziklapena, idazketa, jolasak...

Euskal Okeleko txahala burruntzian erreko da.

12:00etan: Pilotaleku txikian arku-tiraketa.

13:00etan: Andre Maria kalean (Torrea), zaldi-ferraketa.

17:00etan: Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea. Azokako saltokiak zabalduko dira. Beira puzten, hargintza, forja-lana, larruginak, ehoziariak. Zeramika-tailerrak, birziklapena, idazketa, ohiko jolasak....

18:30ean: Andre Maria kalean (Torrea), zaldi-ferraketa.

18:30tatik aurrera: Beti Argi Banda, Laguntasuna errondaila eta 'Larrun-Arri' abesbatzaren saioak.

19:00etan: Plazan, Euskal okela txahalaren dastaketa.

21:00etan: Plaza Nagusian, Euskal Herriko ipuin eta elezaharren kontaketa

Maiatzak 10, igandea:

11:00etan: Azokako saltokiak zabalduko dira. Beira puzten, hargintza, forja-lana, larruginak, ehoziariak. Zeramika-tailerrak, birziklapena, idazketa, ohiko jolasak....

11:30ean: Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea: Juglaren kalejira, zaldunak, errege segizioa eta parte hartzaileak.

12:30ean: Andre Maria kalean (Torrea etxean), zaldi-ferraketa. Pilotaleku txikian arku-tiraketa.

17:00etan: Azokako saltokiak zabalduko dira.

17:30en: Barrena Kultur Etxetik, azokako segizioaren desfilea.

18:30ean: Andre Maria kalean (Torrea), zaldi-ferraketa.

Egunero eta ordu desberdinetan, hainbat saio egingo da azokako inguruan: Juglarrak, antzerkia, zaldunen desfilea, dantza-taldeak, musikariak.

Ordizia

XVIII. Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa

Ordiziako Argi Berri elkarteak, Ordiziako Udalarekin batera antolatuta, XVIII. Lazkao Txiki bertso paper lehiaketako oinarriak kaleratu dituzte. Ohi bezala, hiru maila izango ditu lehiaketak.

Gaztetxoen maila:

13 urte artekoentzat (2009an 14 betetzen ez dituztenentzat). Neurria eta doinua libreak izango dira, ez ordea gaia. Gaia 'Aurten ez omen goaz oporretara kanpora' izango da. Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 2 eta gehienez 4 izango dira. Sariak: lehenengoarentzat, 200 euro; bigarrenarentzat, 100 euro eta hirugarrenarentzat, 50 euro.

Gazteen maila:

14-18 urte artekoentzat (2009an gutxienez 14 eta gehienez 18 urte betetzen dituztenentzat). Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Gaia, librea da. Sariak: lehenengoarentzat, 300 euro; bigarrenarentzat, 200 euro eta hirugarrenarentzat, 100 euro.

Helduen maila:

1990ean edo aurretik jaiotakoentzat. Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Bertso-paper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Gaia, librea da. Sariak: lehenengoarentzat, 500 euro; bigarrenarentzat, 400 euro eta hirugarrenarentzat, 300 euro.

Lanak aurkezteko epea

Lanak 2009ko uztailaren 1aren aurretik bidaliko dira, Ordiziako Argi Berri Elkartera (Gipuzkoa kalea, 15-behea - posta elektronikoa: aitor-c@ahize.aek.org. Sari banaketa, irailaren 13an egingo da, Ordiziako Euskal Jaien barruan.

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegia
Jatetxea
Sagardotegiko meua

943 88 77 26 ALTZAGA



Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

IÑAKI ARIN
aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

Ordizia

Kulki taldearen haur jolasak

Maiatzaren 9an, arratsaldeko 5,30etan, Plaza Nagusian, Kulki taldearen haur jolasak izango dira, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Hitzaro elkarteak antolatuta.

Herri Urratsera autobusa

Maiatzaren 10n Senperen egingo den Herri Urrats jaira joateko autobusa antolatu du Hitzaro Euskara Elkarteak. Txartelak jada salgai jarri dituzte Kale Nagusiko Mujika liburu dendan. Maiatzaren 7a bitartean eskuratu ahal izango dira autobus-txartelak, hamar eurotan; Hitzaroko bazkideek eta mintzalagunek, zortzi eurotan. Maiatzaren 10ean, igandez, 8:30ean irtengo da autobusa Arboladatik, eta 19:00etan abiatuko da Senpereko lakutik herrira bueltan.

Ataun

Oñatiko Ganbara Txiki koralaren emanaldia

Maiatzaren 8an, arratsaldeko 7etan, Herri Antzokian, Oñatiko Ganbara Txiki koralaren kontzertua izango da, Udalak eta Lazkao Txiki musika eskolak antolatuta. Sarrera dohainik izango da.

Ilunpean antzezlan

Maiatzaren 15ean, Herri Antzokian, gaueko 10etan, 'Ilunpean' antzezlan eskainiko du Kanpingags taldeak, Udalak antolatuta. Sarrera: 12 euro (Herriko tabernetan aurrez salgai).

Ezkiotsaso

Ezkioko jaiak

San Migel jaiak ospatuko dira maiatzaren 7tik 10era bitartean Ezkion. Jarraian duzue egitaraua:

Maiatzak 7, osteguna:

20:00etan: Txupinazoa eta ondoren poteoa.

Maiatzak 8, ostirala:

11:00etan: Meza nagusia.

Jarraian: Luncha Argindegi ostatuan.

21:00etan: Herri afaria: Prezioa: 36 euro. Izen-ematea, Argindegi ostatuan (943 72 02 67).

Egun osoan, giroa alaitzeko trikitilariak arituko dira.

Maiatzak 9, larunbata:

12:00etatik 12:30era: IV. Gastronomía lehiaketarako postreak jasoko dira.

14:00etan: Bazkari herrikoia aterpetxean. Menua: paela eta lehiaketako postreak. Prezioa: 10 euro. Izen emateak, Argindegi ostatuan.

16:30ean: Ume jolasak pilotalekuan.

17:00etan: Mus eta punttu txapelketak, Argindegi ostatuan.

19:30ean: Txokolate jana pilotalekuan.

Egun osoan, giroa alaitzeko, trikitilariak arituko dira.

Maiatzak 10, igandea:

10:45ean: Antzinako Ama txistulari taldeak giroa alaituko du.

11:00etan: Meza.

12:00etan: Gaztetxoan pilota jaialdia.

12:30ean: Toka txapelketa.

13:00etan: Goruntz dantza taldearen emanaldia Elizako plazan.

17:00etan: Herri kirolak, herriko jendearen parte hartzearekin.

Erakusketa

Maiatzaren 8tik 10era, antzinako argazki eta tresna zaharren erakusketa izango da ikusgai, Elizan, 12:30etik 14:00etara eta 17:30etik 19:00etara.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behe
ORDIZIA

- Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
 - Aseguruak
 - Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL



Legorreta

Jaiak hastear

Maiatzak 16, larunbata:

16:30etan: Haur jokoak, judo erakustaldia eta merienda, udal pilotalekuan.

18:00etan: III. Elkartearteko Mus txapelketaren finala Aldaieta Jubilatuta Elkartean.

20:00etan: Legorretako Musika Eskolako abesbatzak eta Elekun abesbatzak eskainitako kontzertua Salbador Deunaren Parrokian.

22:00etan: Kortzertua Plazan. Partaideak: 'Pikunk', 'Zea Mays' eta 'Piperrak'.

Maiatzak 20, asteazkena:

18:00etan: Grafiti tailerra. Grafiti egileak: Borja Burgos Nieto 'Core', Carlos Fernandez Rozano 'Fero' eta Alberto Masete Pardo 'Eksa'.

19:15etan: Jaiet hasera emango dien suziriaren jaurtike-ta (Oroitz Jauregi Nazabal. Euskarazko Tesien I. Koldo Mitxelena Saria. Giza Zientziak), ondoren Gizon Pikua Udaletxeko balkoian jarriko da eta bertan egongo da Jaiak amaitu bitarte. Jarraian puxiak, goxokiak, litxarkeriak e.a. ... banatuko dira.

19:30etan: Buruhandiak eta kalejira Legorretako Musika Eskolako ikasleekin.

20:00etan: 'Zazpi Astoren Gainean' bertso emanaldia Plazatik abiatuta. Bertsolariak: Inaki Apalategi, Aitzol Barandiaran eta Jon Martin. Trikitilariak: Ane Larreategi eta Unai Larreategi.

21:30etan: Lagunarteko Afaria Bilkoin K.K.E.-n. Afari honetan 15 urtetik gorako edonork har dezake parte. Afarira joateko sarrerak Kultur Etxean eta herriko zenbait tabernetan salgai egongo dira.

Ondoren eta goizaldera arte, Orkresta taldeak Legorretako kaleak alaituko ditu.

Maiatzak 21, osteguna: Azintzio eguna:

Greba orokorra.

00:00etan: Helduen Danborrada herriko kaleetan zehar.

Ondoren eta goizaldera arte, dantza saioa 'Burrunbazale' txarangarekin.

Gabiria

'Karlitaldien paisaia'

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak, Ameskoa eta Lizarra aldera txangoa antolatu du ekainaren 20an, Jose Mari Tuduri zinema zuzendariaren gidaritzapean, Ameskoa eta Lizarraldean Karlitaldiek izan zituzten paisaiak ezagutzeko asmoz. Goizeko 9,30etan aterako da autobusa Ormaiztegiko Zumalakarregi Museotik. Itzulerako orduan, 6,30etan dago jarrita, Lizarratik.

60 euro kostatuko da txangoa. Joan-etorria, bisitaldi gidatua, hamaiketako, bazkaria eta istripu aseguruua sartzen da prezio horretan.

Informazioa gehiago edo izena emateko, Zumalakarregi museora deitu behar da: 943 88 99 00.

Gabiria

Udaberri kulturala

Maiatzak 9, larunbata:

17:00etan: Balentzategi eskolako ikasleen antzezlan saloian. 1. zikloko antzerkia: 'Itsasminetz'; 2. zikloko antzerkia: 'Tangala danba'; 3. zikloko antzerkia: 'Txibistoren erbia'; Haur Hezkuntzako abestiak: 'Ameriketara joan nintzen' eta 'Sahara'.

Maiatzak 15, ostirala: San Isidro eguna:

12:00etan: meza nagusia eta ondoren baserriarrek beraien eguna ospatuz, bazkaria izango dute Ostatur.

Beasain

Vignemalera irteera

Arrastaka Mendi Taldeak irteera antolatu maiatzaren 16 eta 17rako, Vignemale mendira (3.298 metro). Antolatzaileren esanetan, "mendi honetara igotzeko ez da nahikoa mendian ibiltzen ohituta egotea, baizik eta goi mendian ibiltzen esperientzia izatea eskatzen du. Vignemalaren igoerak, batez ere neguan eta udaberrian, esfortzu handia eskatzen du, izan ere bidea luzea da, eta desnibel handia egotez gain, bidea elurretan egiten da".

Irteera honetan parte hartu nahi dutenek datorren asteartean, maiatzak 12, arratsaldeko 7,30etan, Antzizar kiroldegian egingo den bilerara joan beharko dute. Bertan irteerari buruzko xehetasunak emango dira eta egon daitezkeen zalantzak argituko dira. Irteeran parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Goierni

Txiste eta pasadizo lehiaketa

Goierriko AEK-k, txiste eta pasadizo lehiaketa antolatu du aurten ere, Ordiziako Udaleko Euskara Biziberritze-ko Plan Nagusiaren babesean. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte. Txisteak nahiz pasadizoak euskalkiaz edota euskara batuan idatziak izango dira. Nahi adina bidal daitezke.

3 txiste onenek bina afariko saria izango dute zain, Legorretako Bartzelona nekazal turismo jatetxean, Mutiloako Orue landetxe jatetxean eta Altzagako Altzagarete nekazalturismo jatetxean.

Txisteak jasotzeko azken eguna maiatzaren 15a izango da eta helbide honetara bidali behar dira: Goiztiri AEK, 116 posta kutxa, 20240 Ordizia. E-mail-ez bidaltzeko: (beasain@aek.org edo ordizia@aek.org).

Lazkao

Maizpideko kultur ekintzak

Maiatzean hiru kultur ekintza antolatu dituzte Maizpiden. Hauek asteazken honetan hasi dira 'Austriako Danubioa bizikletaz' ikus-entzunezkoarekin.

Maiatzak 13, asteazkena:

'110. streeteko geltokia' antzeslana, Debako Goaz taldearen eskutik (Lucas Dorronsoro). Maizpideko zinema, 21:00etan.

Maiatzak 19, asteartea:

Bertso-afaria Euxebio Igartzabal eta Mikel Mendizabal. Maizpideko jangelan, 21:00etan.

Goierni

AHTren aurkako ekimenak

Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta, Abiadura Handiko Trenaren aurkako hainbat ekimen izango da datorren asteburuan, Beasainen eta Legorretan.

Maiatzak 15, ostirala:

17:00etan: Msural margoketak Gaztetxean.

19:00etan: 'Intsumisioa multa ordainketei' hitzaldia.

22:00etan: 'SOS Temible' antzezlan.

Maiatzak 16, larunbata:

10:00etan: Legorretako plazatik abiatuta mendi martxa Beasaineraino.

14:00etan: bazkaria.

17:00etan: tailerra.

22:00etan: 'El trinomio caotico' beldurrezko antzezlan.

22:30etan: kontzertua: Humiltate, The Black Gramola Conspiracy eta talde sorpresa.

Beasain

Suganen kontzertua

100. urteurrena ospatzen ari dira Beasaingo La Salle-San Jose ikastetxean eta ekitaldiekin jarraituz, maiatzaren 16an, gaueko 11etan, Beasaingo Sugan musika taldearen kontzertua izango da, Loinazko San Martin plazan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi

ikusgarriak: Asteburu eta jai egunetako saioak: 12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Ipuin animatu bat, non itsu bat eta tirano bat protagonista dituen.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Kartoizko Suziriaren sekretua: Haurrei zuzenduta. BERRIA!

IKUSKIZUN ETA ANIMAZIOAK

Elektrizitate ikuskizuna: Ilek puntan jarriko dizkizun esperientzia.

Planetarium Txikia: 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten

Simulagailuak: Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera

Eta gainera: Segway-a, Fakirren ohea, 1,2,3...matemagia!., sumendiak, esperimenduak, etab.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrocientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU

kutxa



www.kutxasocial.net



Itsasoko Mendiguren baserriko sendia 1931n

Argazki hau 1931ko urriaren 8an ateratakoa da Xanti Okarizen ezkontza egunean, bere guraso eta senideekin.
Zutik ezkerretik eskuinera: Xanti Okariz, Joxe Mari Okariz, Juana Okariz, Frantziska Okariz, Joxe Okariz, Xerapia Okariz eta Joxepa Okariz.
Eserita: Joxe Okariz Oiarzabal (Aita), Katalina Arsuaga, Juan Okariz, Asunzion Elizegi Aizpuru (ama, izatez Ezkio-ko Endaiene baserrikoa) eta Felix Okariz.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Argi Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak



biok kudeaketa
 fiskala
 kontablea
 merkatala
 laborala

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Urdaneta, 7

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira
 Mota guztietako aroztegi lanak
 PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa


☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
 Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Oskarbi Oinetakoak
 Nagusia 34
 Tel 943 881 944
 Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
 Sekundino Esnaola 8
 Tel 943 721 978
 Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
 Nagusia 34
 Tel 943 884 104
 Beasain

Oskarbi Oinetakoak
 Erdiko Kallu
 Tel 943 711 804
 Arrasate



NZ

nazaret zentroa

Aldakonea, 36 · Bº Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

JARDUNALDI IREKIAK

Martxoak 25 Asteazkena (16:00 a 20:00)
Maiatzak 6 Asteazkena (16:00 a 20:00)

INFORMAZIO SAIOAK

Martxoak 27 Ostirala (18:00)
Martxoak 28 Larunbata (11:00)
Maiatzak 8 Ostirala (18:00)
Maiatzak 9 Larunbata (11:00)

Batxilergoa

- Zientziak eta Teknologia
- Natura eta Osasun Zientziak


Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- Administrazioa eta Finantzak
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Nazioarteko Merkataritza
- Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- Administrazio-Kudeaketa



kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza



SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Goierrri
Lanbide eskola,
bost arrazoi
bete-betean
asmatzeko!

informa
zaitenez!!

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

heziketa zikloak egiteko biderik onena